


**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
23n. ZENBAKIA**

**UZTAILLA-
DAGONILLA
— 1979 —**

7ARR

Bilbo'ko Jaiak





70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTËN DAU

GAURKO GIROA

GAURKO GIROA

Uda-aldia aurrera doa eta aldi au arazo askoren deadarra isiltzeko egokia izaten da, baiña aurten, oraingoz beintzat, arazo guztiak deadarka daukaguz. Dagonilla, bear ba'da, bareagoa izango da.

Euzkadi askatasunera bidean ekin eta ekin dabil eta ez guda-zelai bakar baten, burruka-leku askotan baiño. Ori be ba-da ba! Erri baketsua izan berez, eta burrukalari lez agertu bear munduaren aurrean!

* * *

ALKAR IZKETAK

Monzon jaunak gudan gagozela esan ei dau or izparringiren baterako egindako agerpetan eta orregaitik epaitua izango ete dan.

Epaitzeko baimena eskatzen diardue beintzat.

Baiña gure aspaldiko ekiñaldiak berbazkoak dira. Izkilluzko burrukara erriak erri lez nekez sartzen dira eta erri txikiak izan ezkeronekezago.

Alkar-izketarakoa da beñien gure burrukea. Baiña alkarizketan be txikien abotsa txikiagoa izaten dala esan lei.

Gaurko alkar-izketa ta joan etorririk bizienak Araudiari buruzkoak dira.

Eskean lez goazela esan lei Madrid'era, baiña geuri baketan biziten iztea baiño beste eskerik ez daroagu.

Zergaitik ete dauke Madrid'en guri askatasun oso-osea emoteko ainbeste bildur?

Gaizkoak garala esan eta esan diardue, zergaitik nai dabe gaiztoakaz alkartuta bizi?

* * *

IZUKERIA

Izukeria, bildurrez bizitea, da urrengo jakingarria gaurko giro onetan.

Erri zapaldu bat dago or oinpean eta erri zapalduan norbaitzuri eroapena amaitu jake.

Orreik dira izukeri-zaleak.

Orreik dira izukeri bateri beste izukeri bategaz erantzun dautsoen euskaldunak.

Mingarria da! Iñor ez da il bear!

Artu begie gure erria kontuan eta itzaltasunez begitu begiez bere erri-eskubide guztiak eta orduan izukeria urrinduko da.

Elburu batzuk jarri ditue bide orretatik dabiltzanak eta lortu arte ez ei dabez izkilluak itziko.

Baiña erri-askatasun osoa lortu ezkerone, beste arazoak etzekoen artekoak izango litzakez eta berbaz alkar ulertuko geintekoz euskaldun anaiak.

* * *

EKONOMI-LARRIA

Gure lantegietan be ez dira zuzentzen arazoak.

Lanik eza ugariagoa, dirurik eza zabalduz, lapurretan edonon... Eta iñondik argitasunik ez!

Zenbat gazte, lanerako gertatuak, trebeak, eta kalerik kale baragarrikerietan!

Zenbat langille zintzo etzekoentzat ogirik atera eziñik.

Lantegiak, aundiak eta txikiak, egunero eta betiko ateak ixten!

Errekairen eta tximist-indarraren salneurria gora ta gora eta lanaren lanez ateraten diran gaiak saldu-eziñik. Egun larriak, geroago ta larriagoak.

* * *

ELEBITASUN-LEGEA

Gure izkuntzeari laguntzeko asmau zan elebitasun-legea, batez be eskoletarako. Ez zan gauza aundirik baiña bai zerbait.

Etorri dira gero lege ori bete-erazoteko araudiak, eta or barriro be atzerakuntzea.

Gaiñera, eskoletan irakasleak be gitxi bazterretan.

Uda onen asieran, benetan, arazoz josita agiri jaku gure erria. Gaurko giro garrantzitsua dogu.

Piztien Batzarra

AZAGARI

Zozo batengana joan zan, bein, Azagari, eta onelan itz egin eutson:

—Zozo, Zozoko nirea! Zergatik dozak ire gaurko txir-txir alai orreik?

—Ai Azagari, Azagari gaiztoa! Ez dozak, emendik aurrera, nire arrautzak iruntsiko, ez!

—Zer, ba, Zozoko?

—Erpe ta piku luzeko Arrano jabilk beti gaiñean, nire arrautzak zaindu-gurean.

—Zelan dok, ba, ori?

—Txori guztion jaun eta errege aukeratu joagulako!

—Non eta noz?

—Zabalandiko zelaian, lengo udabarrian.

OTSO

Azagari Otsorengana etorri, eta auxe diñotso:

—Galduak gozak, Otso!

—Zer, ba, Azagari?

—Gu galtzeko, batzarrean itz emonda jagozak gure inguruko txori guztiak.

—Beste batzar bat egin bear joagu geuk be. Anak arin, ba, Azagari. Joan, eta pizti eta abere guztiai, etorteko esan!

Joan zan, ba, Azagari; baita laster basoan galdu be. Orduak pasa, egunak joan. Eta Azagari agiri ez. Or dator alango baten. Eta Otsok:

—Ta..., Azagari?

—Artz au baiño besterik ez joat ekarri.

—Au al dok Azagari baten ganorea?

—Bai, Otso, bai! Mendi gaiñak, erreka zuloak, basobaltzak arakatu joazat; baita amaika pizti ta abere ikustatu be...

—Ta...?

—Dana, alperrik!

—Zelan, baiña...?

—Nire buztan arro onen kiratsak salatu, ziur!

—Butanak salatu? Kakaputz, arraio zikiña! Oillo zirtzillak ondatzeko bestetako ez az gauza!

—Zergatik ez az, ba, eu joan; orren azkarra ba'az?

ARTZ

—Aaaup, ixillik!, —oiu egin eban Artzak—. Irurok bakarrik alkartu, ta asarre? Batzartu gaitazan, ba, batzartu bear ba'dogu; eta or konpon beste guztiok!

—Or konpon, ez! Neuk artuko dautsedaz kontuak orko txarri, ardi, bei eta zaldiei,—Otsok, asarre biziz.

—Kontuak kontu, asi gaitazan, arin. Erregea aukeratu bear joagu, lenengoz, pizti gution erregea, ziur, Artzak, barriro.

—Batzar-legeak egin bear joaguz, aurretik, —Otsok.

—Ondo esana! Indarra dok piztien ezaugarri, —Artzak.

—Ona dok indarra, bai; oiua be ez dok txarra, —Otsok, barriro.

—Onak dozak indarra eta oiua; ez dok baiña bape txarragoa bizkortasuna be, —Azagarik.

LEIAKETA

—Tire, ba! Iru oneitara egin dagigun saioa, ba. Eta indarka, lenengoz, —Artzak.

Borroka ori egin...; eta Artza, nagusi.

—Oiuka, orain, —agindu eban Otsok.

Oiuka be egin; eta Otsok irabazi eban.

—Saltoka, orain, —Azagarik esan eban.

Asi dira, ba, jauzika...; eta Artzak egin eban saltorik laburrena; Otsok, luzeagoa; eta Azagarik, lau ankanolaz pasa Otsoren marra.

Bere inka larri orretan baiña, larregi beartu, antza; eta uzker bat urten jakon buztan arroko Azagari orreri, atzeko zulotik. Eta aren ostean etorran Otsok, asarre biziz esan eutson:

—Ai txarri zikiña! I azan bezelako txarto ikasitako ume zirtzilla. Belarri bat jan bear duak, oraintxe berton.

Igesiari emon eutson, anak arin, Azagarik; eta Otso aren atzetik, ziur; eta Artza, Otsoren ondolik...

Eta Azagari ta Otso ta Artza, pizti oker orreik basobaltzetan galdu ziran irurok, bata bestearen atzetik.

ESTONBA'TAR MAÑUEL'EK

SUSTRAIAK

Sustraiak dogu Euzkadiko kirolen alde lanik geien egin dauan Alkartea. Gaur orrialde onetan «Sustraiak» en alde lan egin dauan Etxebarria'tar Iñaki dogu gugaz.

ZER.—Zergaitik sortu zan «Sustraiak»?

E. I.—Bear-izan* bategaitik; beste erri batzutan, Italian, Francian eta abar, egiten diran Kirol-txapelketa edo antzeko batzuk sortu bear ziran emen be, Euskadin; Euzkadiko Kirolak. Gure asmoa auxe da: Guk sortu dogun Euzkadiko txapelketa au, egunen baten Euzko Gobernu baten eskuetan utzitea.

ZER.—Joko onek noiz ospatu dira lenengoz?

E. I.—Igaz asi ziran; beraz, aurtengoak bigarrenak dira.

ZER.—Nortzuk izan zenduen asmo au?

E. I.—Bat edo batek asmoa izan eban eta beste batzuei esan eta arrezkero* talde bezela agertu gara bati.

ZER.—Aurtengo ekitaldia* zelakoa izango da?

E. I.—Nire ustez oso garrantzitsua izango da. Federaziñoakoak laguntasun aundia eskeintzen daukue. Igaz ez euskuen orrenbeste lagundu.

ZER.—«Sustraiak»-barruan kirol guztiak sartzen dira ala Euskalerrikoak bakarrik?

E. I.—Danak sartzen dira, olinpikoak, bertokoak eta danak.

ZER.—Txapelketa oneik zein lekutan egiten dozuez?

E. I.—Euskadi guztian. Txarrena egunak aukatzeke izaten da, arlo onetan España'ko Federaziñoaren menpean gagoz, eta guk aske edo libre dagozan egunak artu bear doguz.

ZER.—(Orduan, aurtengo bagillan Bilbo'ko Feria de Muestras'en egin dozuena zer izan da?

E. I.—Ori kirolen erakusketa bat, «Feria de Muestras» bat. Egun orretan Federaziño bakotxak erakusketa bat egin eban bere kirola zelakoa dan jendeari azalduteko ta olan ezagutu daien.

ZER.—Onelako gauza bat eratzeak* diru asko eskatzen dau, nundik eskuratzen* dozue dirua?

E. I.—Ba-doguz laguntza batzuk, esate baterako: Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala ta Araba'ko Aurrezki Kutxa Probintziala'renak. Beste alde batetik udaletxe* guztiei eskatu dau-segu ta Eusko Agintaritz Nagusiak (C. G. V.) lagunduko daukualda uste dogu.

ZER.—Aurten igaz baño jende ta talde geiago izango dira?

E. I.—Bai, askozaz geiago. Aurtengorako gogo geiago dago kirol guztietan.

ZER.—Dagonillerako ze egitarau* dozue?

E. I.—Ba, begira:



Futbol-finalak, «esquí náutico», «gimnasia masculina», karate, «natación», «piragüismo» ta estropada-txikiak edo «trainerillas». Dagonillaren 16'an San Mames zelaian eta «Euskarari bai» ekitaldiaren* barruan futbol-partidu bat izango da Euzkadi ta Bulgaria'ko zeleziñoen artean.

ZER.—Gure«ZER» onen irakurleentzat ba'dozu beste zerbait esateko?

E. I.—Gauzatxo bat esan gura neuke amaitu baño len:

Gauzarik ederrena «Sustriak» iltzea izango litzakela; orrek esan gurako leuke, orain arte «Sustriak»-barruan oroan dana, Eusko Gobernu batek eroango eballa.

ZER.—Eskerrikasko Iñaki ta ba-dakizu gure«ZER» au zuen zerbitzurako dagola.

IBARRA'TAR BERNARDO

LABUR - LABUR

Il onetan, dagonillean, Bilbo jaigiroz* jantziko da. Gure aldetik jai baketsu ta alai batzuk opa dautzueguz ZER onen irakurle zarien guztioi.

Bilbo'ko jaiak dirala-ta jendetza aundia izango da Bilbo'ko Areatzan* eta uri-zarrear, eta jende asko biltzen dan tokian, zikinkeria be aundia izaten da, paperak eta abar.

Orrexegaitik jaiak irauten daben egunetan ardura aundia euki bear dau Udaletxeak kaleak garbitzeko ta oso gauza ona izango litzake goizero urez buztitzea. Lan onetan geuk ere zeregin bat dogu al-dogunik gitxien zikintzeko. Igaz garbitasun-az aundia ikusi genduan batez be Arenal-aldean.

Aurtengo jaiak euskal-giroaren barruan egon bear dira ta onetan geuk be alegiñak egin bear doguz. Euskera plazara! Euskera Bilbo'ko jaietara!

Egun alai oneitan zergaitik ez dira bultz berezi batzuk ipinten goizeko ordu batetan edo gabeko amabietan esatebaterako, Plenzia,

EUSKALDUN BARRI

Durango, Balmaseda, Lezama ta Santurtzera joateko?



Zabalburu'ko enparantzan iturri eder bat dogu, baña orain 3 urte dala, agortu* zan itxuraz* ta arrezkero antxe dago geldi geldi, ia aurtengo jaietarako martxan ipitzen daben.

Amaitzeko gauzatxo bat eskatuko genduke: Jai oneitan polizia ez agertzea, ezta kalekoz jantzitabe, olan ba'da ziur gagoz ezta ezer jazoko. «Orden Publikoa» Udaletxeko poliziak eroango dabe ta bearbada ona izango litzake konparsak ere lan onetan parte artzea.

Joan dan illean, garagarrillean, gure Alkartean* udako ikastaro* bat izan dogu, irurogei bat ikasle etorri jakuz eta lan aundia egin dabe. Datorren urtean Jaungoikiak gura ba'dau ikasle geiago artzeko alegiñak* egingo ditugu. Etorri zarien guztioi eskerrikasko ta jarraitu zintzo-zintzo Bizkai'ko euskerearen alde, gure euskerearen alde.

Bear-izan	= necesidad
Arrezkero	= desde entonces
Ekitaldi	= campaña
Eratu	= organizar
Eskuratu	= conseguir
Udaletxe	= ayuntamiento
Egitarau	= programa
Jai-giro	= ambiente de fiesta
Areatza	= Arenal de Bilbao
Agortu	= secarse una fuente
Itxuraz	= al parecer
Alkarte	= asociación
Ikastaro	= cursillo
Alegiñak egin	= hacer los posibles

Bilbo'ko jai-talde bategaz

Bilbo'ko jaiak diran ezker oso egoki iruditatu jaku jai-talde edo konparsa batera urbiltzea. Alkarrizketa onetan «Pirikiturriak» jai-taldea izango dogu gugaz.

—Taldea au zenbat lagunek osotzen dozue?

—300 bat gara baiña egun oneitan jende asko geureganatu dogu.

—Zuen iritxiz igazko jaiak zelakoak izan ziran?

—Ba, lenengo erri-jaiak izateko oso ederrak izan ziran eta gure ustez, geu, konparsakoak, izan giñan lenengoak arrituta geratzen.

—Aurtengo jaietarako ba-dago asmo bereziren bat?

—Bai, konparsa guztiak eskaera batzuk egin doguz lantegietara, jai-egunetan goizetan edo lan-ordu egoki batzutan lana egiteko gero langilleak astia izan daien jaietarako. Beste asmo au be badogu: Udaletxeak «capitanía» guztiei eskaera bat egitea, soldadizka egiten aurkitzen diran emengo mutillak baimen edo permisoa lortu daien Bilbo'ko jaietarako.

—Igazko utsuneak?

—Gure ustez egon ziran utsuneak txikiak izan ziran (Arenal'ean jazo zan ezbearra izan ezik) esate baterako: Txosna guztiak batera egon ziran eta oso leku gitxi egoan ibiltzeko, baña aurtan leku geiago izango dala uste dogu, gaiñera aurtengo txosna guztiak neurritz bardiñak izango dira, 8 bat neurkin edo metro izango dabez.

—Zuek, Uri-zarra bakarrik alaituko dozue?

—Bilbo'ko Uri-zarra alaituko dogu, jakiña, baña Indautxu aldea be bai, bestelan leku onek baztertuta geldituko dira.

—Kultura aldetik be lan egiten dozue?

—Asmo batzuk ba-doguz arlo onetan lan egiteko. Bilbo'ko jaietatik aparte aurtan Indautxu'ko jaietan parte artu dogu, Santa Ageda, Olentzero, Dantzari-eguna ta Aratusteetan be izan gara.

—Oso oker ezpanago konparsak artean arazoren bat izan dozue zezenak diralata ta zezenak ondoren izate dan jatsieragaitik, zein da arazo ori?

—Alde batetik konparsa guztien artean 8.000 bat lagun gara ta jatsiera ori oso luzea izango litzake. Ba-dago beste asmo bat, egun batean konparsa batzuk bakarrik jatsiteko ta urrengoan beste batzuk, baiña ezin dira guztiak beartu. Baiña alan da guztiz beste batzuk ezta zezenak ikusi nai ta ezta zezenak agertaraziten dabena «fiesta nacional» agaz.

—Jaien egitaraua zelan egin da?

—Gu 43 konparsa gara ta danon artean koordinadora bat osotzen dogu, baiña gero 8 konparsa aukeratu doguz ordezkari ta lez. Ordezkari onek Bilbo'ko jakintza ta kirol taldeei eskatu eutseezan asmoak jaiak antolatzeko, asmo orrek jaso ondoren gugaz egiten eben berba asmo orrek onartzeko edo baztertzeko.

—Pirikiturriak barruan zagozenok, zenbat ordaintzen dozue illero?

—Len 100 pezeta ziran baiña orain ez dogu ezer ordaintzen, soinekoa izan ezik. Taberna ta pegatiñak egiñaz ataritzen dogu dirua.

—Amaitzeko, aolku bat bilbotar eta bizkaitar gutzientzat.

—Jaiak alaitzeko eurak dirala lenengoak eta egokienak, ia dan-danak parte artzen daben.

—Gure aldetik eskerrikasko ta zuei ta irakurle guztiei jai zorionsu batzuk. ZANGRONIZ

NIRE LURRA

Pozik irakurri nituan gure Aperribay Ikas-tetxeko Galdakano'tar gaztetxoan idaz-lan jatorrak. Tamalez, dan-danak gaztelera utsean idatziak daurkiguz.

Orrillaren 6'garreneko DEIA izparringian ager-turikoak dira.

Bereala ba, gaur berton nire iritxia emotera noatzue.

Norgeiagoko idaz-batzaldi barri au, gure Eus-kal lurhari buruz diarduenez, oso pozgarria jaku egitan.

Ori ta be, esaidazue, gaztetxo maiteok, ez al litzakigu pozgarriago izango zuen artean baten batek, ipuintxoren bat-edo idatziko ba'leuskigu euskera errikoian?

Postura egingo neuke zuen gurasoak euskera dakiela, ta eguneroko jardunetan geienak dara-billela.

Bestela itandu nire izenkide ta aspaldi bateko adiskide Altuna'tar Josu'ri. Bera dozue Galdakano'tar «BASAJAUN» ospetsua. Jarrai bere urratsak.

Gatx samarra jatzuela euskerea?

Ba-leiteke, asiera baten.

Ori ta be ez kikildu! Orain sasoi ederrean, egokienean, aurkitzen zareee. 12,13 ta 14 urteko neska-mutillak zaree. Al ba'gendu zuen ames-sasoira biurtu?

Ia ba, maiteok, urratzen dozuen bildur barik euskal idazle barrien arlo itxaropentsua!

* * *

URTE BEREZIA

Umetxoan eta gaztetxoan urtea ospatzen dogu aurten.

Orrez gain, Madril'dik onartu dabe euskerearen jokaera barria.

Ez daitezela itzak eta itunak bakarrik izan. Gure alegiñen, ekiñalen ordeztu (ez bait-da izan gauza erreza) elebitasunari argi orlegia damotsoe Madril'darrak.

Guk ordea ez dagigun alboratu ainbeste izerdiz lorturiko eta betidanik gure-gurea dogun emaitz zoragarri au.

* * *

IDAZ-LANTXOAK

Laburrak baiña mamintsuak dira.

Lenena Iñaki Lurra'rena da. 14 urteduna bera.

«Len baten gitxi giñan Bizkaia'n Lurra'k eta abereak zaintzen genduzan.

Gero guda-ostean notintz izugarria eldu jakun ta lantegiz betetu giñan.

Orain larregi gara ta bildurrez, gizarte, erri-jaurgo ta diru-oin arazoz gañezka gabiltz».

Arantxa Antetxe'k dirasuku: «Bizkaia beti izan da alaia.

Orain gauzak aldatu dira. Kanpotarrak uste dabe emen beti burrukan gabiltzala.

Alan da be, gure lurraldeetara etorten ba'dira etorri, emen guztirakoak gagozela ta geienak txe-ratsu artzen doguzala autortu bearko dabe».

Fernando Izagirre'k, au 12 urteduna: «Bizkaia gaitik edozer egiteko gerturik egondo nitzake. Au lurralde polita da ta orain goibeldua.

Euskerea iltzez dakusgu.

Piztu dagigun beingoan!».

* * *

IPUIN ZORAGARRIA

Azken au bai ipuintxo zoragarria. Beste irurak lez, laburkiro esatera noa. Ander Iribar'ena da. Onek be 14 urte. Idazlan eta ipuiñerako zaletasun bizia daukala dirausku. Aitor umetxua bere amamagaz Bilbo'ko lorategian dago.

Aitorrek amamari:

Esaidazu, amama, iguin polit bat; benetan polita izan daitela e!

—Bai umetxo! Beñola erri bat zan. Ez ei zan aundia ez eta txikia ere. Mendi-katei artean bizi ziran, biztanle paketsuak. Alaiak, beargiñak, bat-uak, biotz ta asmo batekoak ziran.

Urreko beste lurralde baten sorgin madariku-tatu bat bizi zan eta mendiarteko erri txikiaren aberastasun ta ondasun guztiak beraganatu gura ebazan. Azpijokoz eta indarkeriz zoritxarreko sorgin ori erri onegaz jabetu zan eta bertako biztan-leak itun eta lur-jota geratu ziran.

Erri adoretua zan eta irudi pozkor ta baikor bat eukanez, bere ingurumarian, aspaldidanik lez, batzea otu jakon. Ikur eraginkor au zugaitz-aritz, lerden bat ei zan. Joan eta bere magalpean egozalarik, aritzetik urteniko oi u itxaropentsu au entzun au entzun ei eben:

«Zuen gudari ta illakaitik negar egizue egin. Baiña ori bai, illunabarraren ondoren biaramon argitsua agertu oi dan lez, zuen aberri gaisoak be argitasun disdiratsua ezagutuko dau. Zuen ondorengoak txalotuko zaitue egiz. Ekin bulartsu».

—Amaitu da ipuiña? —Aitor'ek, —Eldu zan egun zoriontsu ori?

—Oraindiño ez, ipuinlaria il zalako— amamak-baiña baikoarrak garanez, laster elduko jakula uste dogu. Bitartean jarrai jo ta ke ta gure erri-gaitik il ziranen alde otoitz bero bat arren. Euren eriotza gure askatasunaren azi emonkorra ta ikur-atz argia bait-dira.

A'TAR JO'K

ERRIKETEA

UDALKIDEAGAZ

Bilbao'ko udalkide (kontzejal) batetaz, euskera egileen nagusi dan Olaetxea'tar Jose Erramon'egaz, alkar-izketa luze bat izan dot joan dan illean.

—Kaixo, aspaldiko! Poztuten nok, eu, beti lez, ain aurpegi argitsu ta irribarrez ikusteaz.

—Eu be itxuraz ez abil txarto! Bai ba, bizi-modu trankilla, ardura aundi bakoa!

—Tirok ba. Eure oraingo arazoa Udaltxean daukat eta, eugaz gai batzui buruz berba egiteko asmoa jaukat. Ba-deritxok, gure arteko oraingo berbeta au zuketa giza-tsuz izango dok, iketaz baiño obeto, naizta antxiñako euskaldunak, Gorbei'ko artzaiñak eta errietako mutikoak iketa-zaleak izan.



BATUA ALA BIZKAIKOA?

Zu, Olaetxea, bizkaitarra zara ta, ez zara izango euskera batuaren lagun...

—Jakiña, Egiluze, guk geure euskalki eder-ederra onartu bear dogu. Guk bizkaieraz beti. Ostantzean ez gintzake izango jatorrak.

—Nik, beintzat, ezin dot ulertu be egin bizkaitarrok, Bizkai-Jaunerriko semeok, Bizkaia'n batua sartzeko idazlanak, ikasketak, ekinaldiak eta alegiñak egiten ibiltea.

Nire ustez, olakoak oneitariko akatsen bat dauke: Jatorrezak, biurriak, nortasunbakoak, kargu-zaleak, arroputsak...

—Ez da ainbesterako izango. Zu apur bat leiatsu zara izan!

ATZERATU

—Batuzaleak errazoi au ipinten dauskue: Gure izkuntzeak irautea nai ba'dogu, batua egin bearko dogu. Baiña nire ustez ori ez da orrelan, euskalkiak zaintzen ez ba'doguz, eukerea gaisotu egingo jaku eta banatasunaren aberastasun ederra galdu egingo dogu.

Bizkaia'n batua sartu zanetik, «euskerea sakabanatu egin da» GAMA idazle ospetsuak esaten eban lez edo Ajuriagerra'k iñoanez, «Eun urte atzeratu da».

—Bai. Ori egia da. Orretan artez zabiltz.

EUSKALKIAK

—Orain urte batzuk, Mitxelena'k Bizkai'ko erri baten bere berbaldia egin eban batuaren alde. Euzkadi'n gauza bateri amar izenez deitu leikiola, baiña izen bategaz deitu bear jakola esan eban, batua egiteko. Erriak go-

rrotoa artu eutson eta arrika egiteko gogo be ba-euken batzuk.

—Baiña ez deritxazu Aberri baten batasunak izkuntza batu bat eskatzen dauala?

—Ez gizona, ez. Ara an gugandik urrin dagozan Beljika ta Suiza, adibidez. Bakoi-txak iru edo lau izkuntza izanik be, aberri maite bat dauke.

Zergaitik ba, guk geure euskalkiai sendo eutsi eta eurak apaindu ta aberastu ez? Orregaitik Euzkadi bat izango da.

Gaiñera, batzuntzat batua, gipuzkera osotua izango ei da. Eta euskalkirik ederrena, eta orain-arte zabalduena, amilka doa.

Txomin Agirre, Kirikiño, Azkue, Sabin Arana, Enbeita, Gama... eta orain bizi diran Zubikarai, Kerexeta, Onaindia, Olazar, Zubiri, idazle ospetsu onein euskalkiari jaramonik be ez? Izan leiteke ori bide zuzen eta zentzunezkoa?

IDAZLEAK

—Ez. Ori ez dago ondo. Guztiz txarto dago.

Aitatu dozuzan euskal idazle orreik eta Bizkaia'n dagozan beste askok, gutzat eredu izan bear leukee eta euskera ondo ikasteko euren liburuak eta idazkiak irakurri bear doguz, dagozan lez, bizkaieraz. Sekula be ez batura biurtuak. Joan dan illeko egun baten Zubikarai'k, berau dogu euskal izparlari zarra ta ona, «DEIA»n idatzi eban bere samintasuna agertuez: «Txomin Agirre ta Kirikiño'ren idaztiak batura itzuli gure dabez. Ez ete da ori ostiko bana eurai emotea?».



DIRU-BATZEA

Ederto be ederto gogaldu dozu gai ori, Olaetxea lagun orrek. Baiña batuzaleok egiten dauskuen gauzarik mingarriena, iguingarriena, azpikeri, maltzurkeri, ausarkeri ta aurpegi gogorrez Bizkai'ko erriari diarua kentzea da, eta ori euren ondasunik ederrena galtzeko, zapaltzeko ta baztertzeko. Eta guk Bizkai'ko euskerea zaintzeko daukagun EUSKERAZALEAK taldeak ez dau artu oraindiño zentimorik be.

EGILUZE

ETXEITA ABADE BARRIA

Etxeita'tar Jabi'k emon dau bere meza barria, aurtengo udabarrian, Igorreta'n.

Nor ete dogu mutil jakinzale adoretu au, abadetzarako bidea artzeko?

Euskaldun bizkaitar zintzo bat. Igorreta'ko semea, Amatza baserrian jaioa, zazpi neba-arreben artean txikiena.

Amaika urte eukazala entzun eban jaunaren deia eta bokaziñotsu joan zan Gabiria'ko pasiotarren etxera 1962 urtean, beste larogei ta amalau mutikogaz batera.

Batzuk urte bat edo bi geroago iges egin eben, beste ainbatek ikasketak amaitu orduan eta zortzi baiño ez ziran eldu lekaide-barri edo nobizio aldira eta, bere ikas-urtekoak bi baiño ez, abadetzara.

Bere ikasketak, Gabiria'n, Euba'n, Irun'en, Gazteiz'en eta Deustu'ko Unibertsitatean egin ditu.

* * *

Urte bitan ekin dau so eziketa-lanari Euba'ko pasiotarren Ikastetxean eta bide batez parroko artzain, lanean ekin dau.

Ogei ta zortzi urte bete dituanean, pozez beterik emon dau abadatzarako oinkadea, Jaungoikoaren izenean eta gizonen serbitziorako.

Eleiz-gizonak urritzen diarduen aldi onetan txalogarriago agertzen jaku abadetzera artze au.

* * *

Erriak eta erriko gaztediak txalotu eben abadetzera artzea.

Igorreta'ko eleizea egun orretan erritarrez bete-beterik egoan eta asko barrura eziñik, atarian.

Mikel deunaren egunean baiño gizaldra aundiagoa batu ei zan.

* * *

Gero, Etxeita'tar Jabi, abade eginda, Deustu'ra etorri jakun, geure aurrean, geure lagundian, mezea egiteko.

Beste zeregin bear-bearrekorik ez genduanok, pozik batu gintzazan beragaz batera koruan esker-oparia Jaunari eskintzeko. Koru-eleizkizun zintzo ta tolesbakoa izan zan. Ez zan izan liturji-jantzi apaiñik, aundikerizko eleiz-araurik, berbaldu luze ta azpergarririk.

Berari biotzetik berez urteten eutsen berbaz egin eban berbaldua eta zergaitik abade izateko erabagia artu eban, zintzo esan euskun.

Bere irakasle-lana egiten Euba'ko ikastetxean pozik egoala esan eban eta ango komunitate-laguntasunean, neke ta naigabeetan, eragozpen eta ezbearretan eukala kitugarria ta ordaiña agertu euskun.

Abadetzagaz bere ikasleakazko lana beteagoa ta Jaungoikoarentzat atsegingarriago izango zala uste eban eta abadetzak daukan erantzupide oneri obeto erantzuteko, Jesukristo'ren laguntza itxaroten eban.

* * *

Berak bere berbalditxoia amaitu ebanean, beragaz mezea emoten egozanai ur barruak eskatzen ebana esateko eskatu eutsen.

Mezakide batzuk egin eben berba, labur eta biotzez.

Euretariko batek, 83 urteko Moga'ko seme batek, Barrena'tar Erasmo'k, biotz-ikaraz beteriko berba oneik esan eutsazan:

«Jesukristo'ren Odola deadarrez dago, mundu zalabaren salbapenerako zeuk isuri dagizun».

LETONA'K

Urri gara euskal literaturan, eta oraintsu gitxiagotu egin dira gure sailleko langilleak.

Mikel Zarate'k itxi ginduzan ilabete batzuk dirala, ta egunokaz itzali jaku Jon Oñatibia euskaltzale jatorra, langille aspergatxa.

Bizkaitarra genduan Zarate, Lezama'm jaio ta illa. Apaiza. Derio'n eta Deustu'n Izkuntza-Eskolan batez be irakasle. Langille aspertu-eziña au be. Biak eroan dauskuz eriotzak denpora gitxiaren buruan. Goian begoz.

Gaur M. Zarate'ri gagokiozala, liburu mordoa itxi dauku idatzi ta argitara emonik. Oneik bai beintzat: «Gure Meza Deuna» (1959), «Gure Salbaziño egintza» (1967), «Meza Liburu txikia» (1968), «Bizkaiko euskal Idazleak» (1970), «Haurgintza minetan» (1972), «Ipui Antzeko» (1975), «Ipuin antzeko alegi mingotsak» (1975), «Influencias del vascuence en la lengua castellana a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierrri» (1975), «Euskal Deklinabidea» (1975), «Euskal Literatura, I» (1977), «Euskal Ortografia» (1978), «Higidura berdez» (1977), «Bizipenen bultzadaz» (1978), eta «Bilbo irriparez», argitaratzeko.

Olerki-liburu bi

Elebarri, nobela ta saioen artean, poesi-liburu bi itxi dauskuz: 1) *Higidura berdez* (Donosti, 1977), eta *Bizipenen bultzadaz* (Bilbao, 1978). Lenengoak 107 orrialde daukaz eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak argitaratu eutsan, 1976 urtean «Ciudad de Irun» deituriko Literatura Sariaren irabazle izan zalako. Bigarrenak 69 orrialde ditu ta Durango'ko Leopoldo Zugaza'k, Bizkaiko Aurrezki Kutxa'ren Kultur ekintzaren laguntzaz, argitaratua da.

Iru zati ditu lenengo liburuak: «Gelan», Baserrian» eta «Hirian».

Olerkaria batetik bat bere lantolan dago, gelan; itz lauz naikoa idatzi dau, ez oster a itz neurtuz, eta osotu nai leukez olerkiak be. Ba-dau ortarako goi-arnasa, ba-dau gaitasunik, eta bertsoak idazten asi da, olermiñak eraginda, aberria ta euskera jasoteko, edertzeko, olerki-lan arin eztiak cioten asi da.

Edestian, ain zuzen be, mituak eta jakintsuen errazoiketak baiño lenago izan ziran poetak, olerkariak, bertsolariak. Homero'ren Iliasenak eta Odisenak ezi ta moldatu eben batez be grezitarren arimea, bizitza ta oiturazko jokabidea. Antigonaren aonan jarri oi da esaera au: «Ederra litzakit iltea, onan egin ezker».

Zarate'k onela pintatzen dau bere gela: «Numenaren inguma, / isilaren atsegin, / mahai, liburu, luma..., / eta anitz zeregin».

Olantxe diardu abeska, euskera batuari, barkartadeari, ezorduen erdimiñari, barne eragiñaren etorriari, rima bako ritmoari, urkulketari, bere bizitzari, larriari, barru daroan kezkarri, eskarrari, uda-sasiari, piñu geigiz inguratutako baserriari, itzaren billa dabillen poetari, Lauaxeta'ri, Lizardi'ri, Aresti'ri, uhain barri etsipen-

MIKEL ZARA

duari, Euskal Literaturaren arrokeriari...

Sorpen bitxiz apaintzen dau zatiño arin bizkorra.

BASERRIAN

Baserrira aldatzen da gero, gorputzez, irudimezez. Eta baserria ta inguruak kantatzen ditu 14 olerki txikitari. Onela dakus iskanbillik bageko baserria: «Ez dago / lehenik / gabeko / orainik, / eta nik / baserriaren / baso usaia / dut orainaren / muin sustraia».

Eta emen be, baserrian, gauzon muiña, guna dau kantagai: goizeko kantu bardin ezbardindua, urdiñaren pozetan txorien kantak, pinpilinpauxak, amonaren leloaren durundua, il dan jaun morroia, laiñoak, astoa, balizko olaren oiartzuna, amama illak itxitako leku utsa, bideko bedarra, ortzadarraren kolorea, Derio'ko kanposantua, granjako oilloak.

Gai errez ariñak, eder-senez gaiñezkako lumaz margoztuta.

HIRIAN

Urira datorkigu azkenez, eta onela damosku iriaren itxura edo azala: «Giro berrien / erdiminez / agertu zintzaizkigun hiri urduria: / Gizabideen / bake pozez / nahi zaitut, euskaldun, / Bilboko hiria».

Euskalerra maite dauala aurtotu ondoren, iriko etxe aundiak kantatzen dauskuz Zarate'k, lanean dabilzan pioiak, jentez beteriko erriak iñurri-pillo piramidetuak, lora zimelduak, ardoaren doiñua, errazoi tristeak, zoroaren mozkorra, tren mingarria, udazkena egongela bateko kuadruan, umearen loa, kanario bati begira, Bilboko serenu baten emaztearen seaska-kanta, txirlora biurturiko lapitza, ikastolarik onena, aurrak lakoak izan bearra, ematxar, maiteminduen lore ameslariak, musuaren garaia, betearen egarria, kotxea, billa ibiltea, iriko libelula, pentsamentu txarra, Pompei, Bilbao zaarra, lili-amesak, kutsadura, aize-tara eroan bearra.

Onetxek dozuz irugarren saillekoak.

«Bizipenen bultzadaz» liburuak be iru zati ditu: 1) *Astzekabezko bizipenak*; 2) *Atseginezko bizipenak*, eta 3) *Ametsezko bizipenak*.

M. ZARATE, OLERKARI

Gai arrunt eta ez-arruntak darabiltz lezamatar olerkariak, arin ta errez. Ez ditu gaizki ariltzen ideia ta oldozkunak; ezin daikegu esan, alan be, funts-errai aberats sakona dauanik.

Mikel etzan ari ortakoa; bere idatzi guztietatik agiri danez, sorgin-pitxi antzera, lora-zale geiago dogu gun-zale baiño.

Urduri gendun izakeraz, ta aren literatura orrela egiña da, bizi, arin, jolasketan lez.

Eta guztiok gara izakeren mutil, ez geiago, ez gitxiago; ez leia, ba, ikoari matsik eskatzen.

TE, OLERKARI

Aren olerkirik geienetan anaforak, errepikak, bir-esanak aurkitzen doguz ugari, gaurko modari jarraituz; itzurren eta joskera bizia.

Adierazpen barriak ikasi zituan, antza, etxeko ta kanpoko olerkarietan; etxekoen artetik, Lizardi, Orixe, Loramendi, Jautarkol, Etxaniz, Zaitegi, Erkiaga, Aurre-Apraiz ta onakoen eskola giarra baiño gogokoago eban azken uiñeko poeta dar-daratién joera.

Itz-amai ta rimari buruz, geienez, naiko ondo zaintzen dau lan laburretan; luzetan ez dautso, barriz, orrenbeste gora ezarten.

Ez dau kemenik itzak aukeratzean, esaldiari adierazpen bizia emoteko; ez dautsa orri esateko garrantzirik ezarten.

Egiazko olerkiak, betierekoak, mamiz ta azalez antzetsu landua izan bear dau.

GAURKO POETAK

Ez noa iñori miñik emoten, ez iñoren izenik aitatzen. Neure eritxia agertu nai dot bakar-bakarrik.

Gaur, zoritxarrez, ez da gurean poesi askorik idazten, eta idazten dana be, nik baizen ondo dakizue zuek, poetok, ondo epela ta geldoa dogu.

Nundik datorkigu epelkeri ori?

Ainbat urteko zapal-egotetik, bear bada?

Orain ez ete gagoz egun-senti garaian? Dana guzurra ete?

J. Azurmendik oraintsu autortu eban: «Euskal poesia modernuaren haserak, ezpairik gabe, 1930 eta 35 artean ezarri behar dira».

Eta iru poeta landu aitatzen ditu: Lauaxeta, Lizardi ta Orixe.

X. Lete'ek, ostera, au autortu euskun: «Lizardi ez dute, ez, irakurtzen ez duten intzentsulariek edo lurperatu nahi luketen banpiroak, ez jainkotuko, ez desegingo.

Lizardi, guretzat eta euskal kulturarentzat zorronez, ziztrikeria horiek zipriztindu ez dezaketen gailur batetan baitago: poesiaren gaillurrean, hain zuzen».

Izan be, irakur Lizardi'ren edozein bertso-lan eta oso-osorik lilluratzen zaitu; ba-dau zerbait, ukatu ezin daikeguna, eder-senez ase-betea.

Aren sakontasunaren gaitasuna gauzak adierazteko!

Aren euskera jantzi, bizia!

Euskal poetok, beraz, ba-dakigu norantz jo; eredu-billa, adibidez.

Ekar daiguzan emen Lizardi berberaren itzok be: «Olermin aundi eder batek baigarabil euskozale oro: aberri berriaren olerki giarra egin dezagun: idaz dezagun guziok neurtitz bana, be-derik!». Dei gartsua.

Nik ez diñot euskal idazle guztiok olerkigintzan asi bear dogunik, baiña olerkari izenez sagaratuok beintzat, azken urteotan baiño geiago lan egin bear genduke Musaen alorrean. Luma ar daigun, bada, ta lanera! Aberriak ez al dau merezi lan ori, olerki giarra, Lizardi'k nai ebana?

Mikel Zarate'k ortan be ikasbide ona emon euskun.

Ba-ditu ederto landuak, baita pillotxo balio gitxikoak be.

Euskeraz bikain ekian, ba-eban eder-sena; noizik bein errezkeriz botatatoak, ziur asko, kas-kar samarrok. Dagigun, al dala, poesi osoa, barru ta kanpo eder.

AITA ONAINDIA

Izki - Nastea

T	X	I	N	D	U	N	L	U	G	O	P	O	Z	A
A	T	R	O	G	O	K	E	N	A	G	N	O	D	A
T	Z	R	I	E	D	K	R	E	G	I	R	J	R	I
B	E	A	Z	T	I	G	A	A	J	R	R	E	N	S
R	S	D	T	S	D	E	D	I	Z	A	M	D	O	R
R	A	I	S	E	B	M	U	S	I	T	X	U	X	U
A	K	I	O	R	A	J	O	L	L	E	I	R	L	L
B	U	D	O	P	A	T	T	S	O	B	I	L	L	A
E	N	G	U	T	Ñ	I	D	O	J	O	D	Ñ	O	Z
I	R	R	A	S	O	L	L	U	B	E	G	E	D	K
T	S	U	B	O	M	U	R	R	O	X	U	N	L	I

Antxiñan, Bizkai'ko Foruan, Gernika'ko Batzarrak egin baiño len deia egiten zan suaren bidez Bizkai'ko bost menditak batzarretara joateko.

Izki-naste onetan bost mendi orrek agertzen dira, topatzen ezpa-dozuz ikus azkenengo orrialdean.



Jon Oñatibia (G. B.)

- EUSKERAZAINTZA samintasunez baterik aurkitzen da.
- Bere bazkide bizi ta gogotsu batek azken-agurra egin dautso. Jon Oñatibia il jaku.
- Bide zabalean ezbear bat, bere gorputza zaurituta, bere ezaguereaa galduta... egunak joan, egunak etorri... itxaropen barik.
- Eta azkenez, geroko bizitzara, Aitaren eskuetara...
- Uztaillaren lenengo egunean, bere alde eleizkizun ederra, Oiartzun'go eleiza ederrean.
- Euskalerrri osoko adiskideak eta lankideak an alkartu giñan.

—Atzerrian, samintasunez naiz pozez, euskalzaletasuna zabaldu eban; Paris, New York, Caracas... Caracas'en ARGIA aldizkaria berbizitu eban guda-osteko urte larrietan.

—Lege-gizona zan, baiña arlo orretan egin-dako lanak dira gitxien aitatzen diranak.

—Musikalari zan: ERESOINKO abes-batzeko, txistularia, koru-zuzendaria, sortzaillea.

—Dantzaria ta dantza-irakaslea: Olague'ko INGURUTXO dantzea zabaldu eban, taldeak sortu be bai.

—Eres-sortzaille lez, koru ta eres-gaillu gaiak, mezak, bitarteko abestiak, biribilketak... eta berea zan bere illetan abestu zan AVE MARIA ederra, klasiku-tankerakoa. (Lekuona'k).

—Irakaslea zan: 1965'ean argitaratu eban *euskera irrali-bidez* ikas-liburua, geroago bizkaieraz eta bigarren ikas-urterakoa. Lapurteraz be bai.

—Euskera irakasteko dantza bidea asmatu eban. Lenago Iztuetak dantzak itzez irakasten zituan, Jon'en itzak dantzaz. (Au be Lekuona'k diño GOIZ-ARGI'n).

—Umeak izan ditu beti ikasle lez kontuan eta berak andereñoak gertatzeko ardura aundia izan dau, umeai zelan irakatsi izan da bere ardura: abesti-bidez, soinketa-bidez, dantza-bidez... Gogoan daukaguz XABIER Ikastola-taldearen ikastaroan esandakoak. Entzun-ikus gaurko bideak onartu zituan.

—Bere irakasletza ez da izan erri batekoa; bere irakasle-jarlekua, erririk erri ibilli da.

—Euskaltzain laguntzaillea izan da, Euskaltzaindia zintzoa zan aldi areitakoa.

—Aldizkarietan idazle: Zeruko Argia'n, Agur'en Goiz-Argi'n...

—Edili Argitaldariaren zuzendari eta beste arlo askotan euskerearen eta gure jakintzaren zabaltzaille.

—Irratietan zabal dabiltzan umeen ipuiñak euskeratu zituan: Edurne Zuri, Ipotx Triskaria, Txano Gorritxo, Erruskiñe, Hamelin'go Txirularia, Aatetxo Itxusia...

—Langille nekatubakoa, utsaren truke lan egiten ebana, lanari ezetz esaten ez ekiana.

—Bere eritxiak apaltasunez esaten zituan, bes-teenak gogoz entzun, bere langilletasuna ixillean geratzen zan, «ondo ezia zan» (Basarri'k G. A.'n).

—Erri-bidetik jokatu eban beti eta ez eban eskuz-egindako euskerea onartu.

Euskalkiak lantzen ekin eban eta sarritan bizkaierari buruzko laguntza eskatu eustan. Oraintxe be zerbait ba-neukan eskuetan egiteko eta berari bialtzeko.

—Bide okerretik joiazanakaz ez zan buztartzen eta EUSKERAZAINTZA'gaz pozik ekiten eban.

—Ez zan guztien gogoko izango, bear ba'da, baiña bere lana ez dau iñork ukatuko eta etorkizunak bere bideak onartuko ditu, gaurko alkar ulertu eziñak amaitzen diranean. Bere gaurko arerioak be, egun baten zuzentasunez epaituko dabe

—Labur-labur esanda, kristiñau, abertzale ta euskaltzale izan dogu Jon, itzez eta egitez, zuzentasunez eta maitetasunez. Berak itzi daukun ut-sunea beteko al dogu bere jarraitzailleak.

OLAZAR'tar Martin'ek

AITA VITORIA

Gazteiz'en jaio zan XVgarren gizaldiko azken aldian. Etxe oneko seme zan; eta Domingotarren konbentura sartu zan, amazortzi urtekoa zala.

Paris'en egin zituan bere ikasketak; Tomas eta Alberto Magno deunak egin ebezan ikastetxe bertan. Eta ango maixu biurtu zan, urrengo, arein antzera.

Españiara itzuli, ta Valladolid'en irakatsi eban, eta Salamanca'ko ikastetxe nagusian gero, azkeneko bere ogei urletan.

Ez eban edozelan irabazi ango goi-maillako irakasletza. Munduko ikastetxe nagusia zan Salamanca'ko ikastetxea; eta bazter guztietako jakintsurik onenak aurkeztu ziran irakasletza ori lortuteko eratu zan leiaketara.

Illabete osoa iraun eban leiaketak. Eta maixu arein saio luze ta sakonak entzun ondoren, aita Vitoria aukeratu eban, ao batez, bertoko ikasle ta irakasleak.

MAIXUA

Eta ez ziran damutu.

Lengo esakera, idazkera ta irakaskera zarrak barriztau ebazan. «Klasikoen» mundu bereizia ezagunerazo eban. Pedro Lonbardo'ren liburuak kendu, ta Tomas deunarenak sartu ebazan. Iturrietara jotzen eban beti bere saioetan. Eta gizalegea be aztertu ta irakasten eban, jainkolegeagaz bat.

Buru zorrotz eta argiko gizona zan. Gai astun eta biurrienak be, argi, garbi ta gozo azaltzen ekiana. Izadiko mirari bereizi bat zan.

Maite eban ikasleak, itsuki maite be.

Aulki latz luzeetan ezarririk, agoa zabalik entzuten eutsoen; eta paper zabalak belaur geñetan ipiñirik, arek esandakoak, itzez-itzez, jasotzen ebezen.

Ezueria edo gota geixo ori eukan, eta ezin zan, sarri, oiñen gainean ibilli, Or etorkozan, orduan, ikasleak, alkar leian ariñeketan, eta lepoan artuta ekarten eban eskolara.

«Izan lei, bai, jakintsu andiagorik, —esan oi eban aren ikasleak—, ez baiña maixu oberik».

«DE INDIS»

Izen ori ezarri eutson maixuak Inditarrei buruz berak emon eban ikasgaiari.

Eskubide osoz eskuratu ebazala Ameriketako lurraldeak, esan oi eutsoen Karlos I erregeri aren gorte-egille koipeak. Ez eban alangorik uste maixuak, eta onelan ezereztan ebazan sasi-jakintsu arein arrazoi nagusiak:

Areik: Gure erregea mundu osoko jabea da. Onek: Nork esan dau ori?

Areik: Mundu guztiko buru dan, Aita Santuak emon deutso. Onek: Guzurrea da ori.

Areik: Españiarrak irabazi dabez. Onek: Ortaz, bardin etorri leikez eurak be, eta gureak artu.

Areik: Ez dabe gure federik artu gura. Onek: Fe-dea ezin lei indar eta gogorrean sartu.

Areik: Gure erregea onartu dabe. Onek: Bai..., Cortés eta Pizarro'ri esan...!

Areik: Jainkoak emon dautsoz, Israel'i Palestina lez. Onek: Nun agiri da ori?

Eta au gainheratu oi eban aita Vitoriak: Lurralde orreïn jaun da jabe ziran Inditarrak, Españiarrak aratu baiño len.

«DE JURE BELLI»

Garrantzi aundikoa izan zan gerrateari buruz beste ikasgai au bere.

Borroka ta guda askotan sartuta egoan Karlos I; eta sarri askotan, sortu oi ziran arei buruzko arazoak; eta ez txikiak.

Ona emen, gai ori dala-ta, gure maixuak egiñiko galde-erantzunak:

Zillegi ete da iñoiz guda egitea? Nekez, baiña iñoz-iñoz, bai.

Eta Laterriaren edo ta aren agintarien andi-naiez? Ezta bere.

Noz, beraz...? Iñor iñoz gure aurka, indarra lege, datorrenean.

Eta zelan jokatu, orduan, arerioen aurka? Neurritz, beti. Indarkeriz sortutako okerra azpiratzeko aiñean, bakarrik.

AREN AINTZA

Aita Vitoria'ren ikasgai eta argibide oneik ikusita, itaun au datorkigu, burura: eta nundik-nora eldu yakon geure maixuari legediari buruzko ganora ta zaletasuna?

Arabian agintzen eban, Arriaga'ko Batzarraren ordezkari zan gure maixuaren aita, Pello. Eta onengandik artu bide eban, gura maixuak, antza, bere giza legerako zaletasun eta ganorea.

Dana dala, erri arteko lege-jakintzaren sortzaille dogu gure aita Vitoria. Ori bera diño, a baiño gizaldi bat geroago jaio zan, eta gai orreik berak landu ebazan, Holanda'ko Hugo Grocio, lege-gizon ospetsuak.

ARAZOAK

EGUZKI - INDARRA

INDARRAK KONDAIRAN

Aldien joan-etorriaren araberan, ikatzaz, lurrun-indarrak, tximist-indarrak, berein muetako errekin ta arroliotik sorturiko indarrez eta azkenik atomik-indarrak baliatu oi gara eta neurri txikiago baten ba'da be, oraindiño baliatuko garala deritxat.

Oiñarrria izan dogu eta ezin geinke guzti au bat-batean galdu. Ez bein.

EZTABAIDAK

Ori ta be egungo egunean atomik-indarra bidezkoa ta onuragarria dala ta ez dala, eztabaida zorrotzak, ibilketa ta agerraldi ugariak ta bestelango eragozpen ta beatzarriak sortu jakuz.

Ez da arritzeko zera, Laterri Batuetan kokaturiko atomik-indarrola batek izan dituan ezbeurrak, ze-nolako dunbadak eta aran-otsak ikusirik.

Bizkaia'n be, Lemoniz'ko atomik indar-etxea ia amaiturik dagonez, euskaldun arteko burrukak nabarmentsuak dira, ez bait dago argi txik ia atomik-indar au baliotsua ta egokia izango jakun ala ez.

EGUZKI-INDARRA

Gizadia, zentzuki, beste indar eta argi baten billa doa, eguzki-indarraren billa.

Eguzkiaren izpiak berotu egiten gaitue.

Bera dogu gizadi guztiaren bizitz-sorburua.

Origaitik, landa ta mueta oroetako belarkietatik asi eta abere ta gizakiaz jarraiturik, dandanok beragandik datorkigun berotasunaz bizi gara.

Jakitunak, arrolio ta anitz lengai preminazkoak urriturik eta garestitzen doazanez, eguzkiaren berotasun-indarrez, baliatzeko asmakizun ugariak egin dagiez.

Or doguz, eredu, israeldarrak, or Laterri Batuetakoak, or beste ainbat laterri.

ISRAELDARRAK

Israeldarrak aspaldi batetik euren kibutz edo etxalde landatuetan eguski-izpilla bereziz eta argi-aurreaz, eguzkiaren izpi biziak batu oi ditun pantalla bedegarrez baliatu ei ziran eta millaka kibutz oroetan edatu.

Tximist-indarraren ordeaz eta berogaillu aparta lez, eguzkiaren berotasun garbi paregabea berein kibutzetan darabille, baita landola batzuk be.

INDAR-NEURRIA

Eguzkiaz, asko be asko esan lei, baiña laburtzera noa.

Nuerkin lautu bakoitzean gure lurraldeak eguzkiagandik arturiko berotasuna, tximist-indarraren kilowatio baten baliadona ei da.

Obeto ulertu-erazoteko, dagigun edonongo errizka bat, bere luze-zabala 50 ektareetan kokatu oi dala. Eguzkiagandik artu daroan berotasuna tximist-indarrarena zenbatu, neurtu ezker, 10.000 megawatiorena edo bardin dana, 10.000 milloi watiorena or nunbat izan daiteke.

Orrelan 100 watioko 100 milloi bonbil edo argi-madari iziotu geinkez batera.

Merezi dau bai, orretzaz jakintsuak konturatu daitezen.

LATERRI BATUETAN

Laterri Batuetako Arizona'n eremu ta basamortuak ugariak doguz.

Dakigunez, 6.000 km. lautuetan edatu oi dira geien baten.

Ori ta be, eguzkiaren berotasuna artu oi daben izpilluz eta argi-aurre bereziz ortarako bearrezkoak jakezan gertakizunak egitekotan, emendik bi edo iru urterako ia Laterri Batuetako serbitzurako bear dan tximist indar erdia basamortu ortatik atara leikee.

AUNAMENDI'N

Gure lurraldeetara etorriarik, Aunamendi mendikatean ba-dogu Prantzi-aldeko Mont-Louis deritxon aldean, guzti onein eredu bikaiñetariko bat.

Eguzkiaren berotasuna bitartekotzat dauala, tximist indar-ola bat egin dabe.

Guztiz arrigarria dogu bera.

Laiñoak ugariak dira, ori ta be, egun argitsuak, bataz beste, 200 inguru urteko. Izpilla berogailluen kopurua 20.000'raiño igon dabe.

Eraketak 240 milloi lauerlekonak izan ei dira, baiña onurak aundiak dira eta izango be bai.

ITXAROPENA

Ez dogu aaztu bear eguzkiagandik datorkigun tximist-indarraren garbitasuna.

Ez dauko, dirauskuenez, besteagaz bardintzekotan, paretasunik.

Askoz be txukunagoa, garbi-gardenagoa, ei da.

Orrelan ba, tximist-indar aro, aldikada barri bat datorku.

Orain-artekoetan eguzkiak berotu ezeze bizitz-giro osoa emonaz, bizidun guztiak bizkortu ta ernaitu bagaitu, gaurkoz geroztik, gure tximist indar-olak eta onein odolez bizi diran bestelango industri guztiak izango dabe eguzkiaren indar berezi onegaz gun eta izerdi barri ta pozgarri bat.

Aurrerantzean, eguzkiaren berotasunaren tximist-indarra sortu azoteko egingo diran aurrerapen eta gertakizun baliotsuak, kontuan artzeoak izango dira.

Orretara goaz. Geroa lekuko.

ARREGI'tar Josu'k

“Etxebarriak” Euskeraz

«Bizkaiko lurak eder miñetan
altzoan dauka semea.
Egixerrek eta Kalamuk zaintzen
Etxebarria lorea».

EUSKAL KABIAK

Zure babespean jaio nintzan ta bizitz sormenaren sorra zurekin daukat, ene Etxebarria maitea.

Zure etxeak, banan-banan, ezagutu nituan, gaur be banan-banan, onartu ta goratzen ditut.

Etxebarriako bizi-leku guztiak euskaldun kabi ederrak dira.

ERRI-IZENA

Emen, lenengo agertzen dodana, au da: Zure egizko izena, lotsaz, artzen dot, Etxebarriar guztiak bezela.

Bizkaiko semien pekatua da, erri txikiago bat, non, dagon, agertzeko, alboan dagoan aundiago bat aitatu bearra.

Au penagarria dala deritxot.

Ta erri orren toki ta izena ez ezagutzea, euskal kulturaren oiñarri ederra, bikaiñena, non dagon, ez jakitea dala datorkit burura.

Etxebarriarren izkuntza, iñoiz, ez da izan edozelakoa.

ERRIKIDEAK

Nire jaioterriaren izen bikaiña «Etxebarriako Deun Ander» da, udaletxeko erritar silluez josita.

Etxebarriar errikideak, egiz eta zuzentasunez, au, bakarrik, onartzen dabe eginbearrez ta euren eskubide osoaz.

Etxebarriarrak, zuena da erri orren izena zaindu ta berari eusteko ardurea.

OLERKIA TA BERTSOA

Ume ta gazte-aroko aldietan, basetxe, zelai ta mendi usain artean bizi izan giñan.

Kanpoaren maitasun artean.

Olerkia ta bertsoa ta baita giarrea erion nire sorterriko lekuak.

Etxebarriarrak, amaika bider, joan nintzan mendi gallurretara, gure erriaren edertasuna ikusi ta artzera.

Beti, asetu ezinik etxeratzen nintzan.

Kalamu zoragarritik euskal medietara begiratzen nebanean, Euskalerrri onek mozkortuta izten ninduan.

GUDA-ALDIAN

Gure bakezko baserri bizitzaren edertasuna gudaren otsak zauritu eban.

Kalamu, Mandiola, Amulategi ta abar, astu ezinak. Odolez gorrituak.

Baña gaur, maite dodan jaioterria, eder ikusten dot.

Gudaostean sortu zan giroa kristau laguntzaille buruari esker, ongarrria izan da.

Franzisko Etxebarria, abade jaunak egin eutson ona Etxebarriari, nere ustez, agertzen da erriaren batasunean.

TOKIRIK EUSKALDUNENA

Erritarrak, emen, alto egingo dot.

Gaztetatik zuengan ikusi nai nebana, orain, ikusteko zoria izan dot.

Bizkaiak daben tokirik euskaldunenean, bizi izateko subertea dozue.

Mendi giartsuz inguratuta, urrezko txoko bat dirudi Etxebarriarren kabiak.

Etxebarria ez da toki laua, baño mendiak darioen esne ta eztiagaz, maitekor ta bizigarri biurtzen dira solo, zelai, erbera ta bizkarrak.

GURE ASABAK

Ez dakit nondik, ez dakit zelan, baiña ortxe, sortu ta eratu zan Etxebarriarren euskotar bizia.

Gure asabak izan ziran aldirik aldi Etxebarriako biziari bere gatza emon eutsoenak.

Egiz eta pozez, esango neuke, erri ortan artu izan neban bitxirik ederrenetariko bat, euskaldunen euzkera dala.

Etxebarriarren izkuntza, bizia, ederra, aberatsa ta ondo, josia da.

Eguzkiaren bizia lakoa da: beroa ta argitsua.

EUZKADIRI ZORRA

Nere erritarrak, Euzkadi guztiari zor bat dautsozuela deritxot; artu dozuen izkuntza eder ori, euskaldun guztien artean edatu. Emon da zabal zazu Euskalerrrian frutua.

Izkuntza ez da bizpairu, izkuntza ederezaleena, ez eta ere amets egin nai dabena.

Erriaregandik artzen dau jaio-barriak itzaren edertasuna.

Erritar guztiak dira euzkera izkuntza jakintsuaren jabe. Mendiak lagunduta, erri-semeok, or, ondo, zaindu dozue, jakintsuentzat arrigarria dan euzkerea.

Izkuntzak agertzen dau argiz
cusko semeen leñargia,
giza biotzeen kementasuna
adore itzez josia.

Kalamuaren aurrean dago
euskal enda berezia,
zuk daroazu biotz barnean
euzkerazko itz eztia.

SOLOZABAL'dar Paulin'ek

UDALDIA

Elorri da udea, beragaz oporrak. Ba-goaz gorputzak lasaitutera, batzuk itxas-ertzeko erriren batera joango dira, beste batzuk mendira, eta beste batzuk arazo onegaitik edo besteagaitik etxean gelditu bearko dira.

* * *

JENTE LAR

Erri orreetan lasaitasuna, aize garbia eta bakea aurkituko doguz, bertan birikiak garbitu, gorputza lasaitu eta kirioak apur batean bakean itxiko dauskuez. Baiña opor oneek be ba-dauke beste alde bat: Udalaritzagaz arazo asko agertzen dira.

Nik Bizkai'ko erri txiki baten arazoetariko batzuk azalduko dodaz, eurretan sakon-sakon sartu barik.

* * *

Erri au itxas-ertzekoa da, baiña, naiz eta itxas-ondoan egon, nekazarien erria izan da beti, gaur orrelan oso osoan izan ez arren.

Gaur egunean dagozan denda ta tabernarik geienak udari bagira dagoz ipinita.

Bai, alde onetatik datorren jendea onartua da, dirua eta bizitza barri bat dakar errira, naiz eta bizitza barri ori, urte batzuetatik, ona, oso aldatuta egon.


Oraingo udak beste era batekoak dira, orain datorren notintzagaz, erri au uri biurtzen da, ta ez daukagu ez bakerik eta ez lasaitasunik.

Jende lar, ta onetaz gaiñera batzuk ez daukie bear dan beste lotsa besteen gautzentzat.

* * *

SOLOETARA

Auxe da idazki onen oiñarria: Oporretan gure errian dabiltzazan «piratak».



Egia esan gitxi dira, baiña egiten dabekaltea aundia da, bai baserritarrentzat eta bai beste udalariarentzat.

Erri onetara «al asalto» sartzen dira; ona eltzen diranean, mantsotu egin bearrean pizti edo, biurtzen dira.

Beiak be, denboraldi bat ba-daukaguz kortatik atara barik, kalera urtetan dabenean mantsoagoak izaten dira.

Beintzat ez dira joaten iñori lapurretan egitera, ez eta kalterik egitera.

* * *

NEKAZARIEN IZERDIA

Zenbat piper eta beste barazki batu ete da gure erriko soloetan marraskilloak batuten dagozala esanaz!

Ez dira konturatutzen jende orreik «marraskillo» oneek gure nekazarien izerdiagaz lortutakoak dirala?

Txinbereagaz edo eskopeteagaz egon bearko dogu lapurrei begira?

Egia esan txarto ez litzako etorriko lan-tzean bateri gatz apur bat lepoaren azpian!!!

* * *

GUZTIOK ERRITAR

Baiña len esan dodan lez, geienak ez dira orrelakoak, geienak ba-dakie zer dan «sentido de la civilización», noiz ikasiko ete dabe besteak?

Orregaitik idazki au, zuentzat da, opor-rak igarotzen uda-erriren batera zoazeneentzat: Zaindu egizuz besteen gauzak, zeureak zaintzen dozuzen lez, estutu dagiguzan gure arteko artuemonak; ez daitela izan ezberdintasunik erritar eta udalarien artean, danok erritarrak izan gaitezcan gure erria bizkorturik.

* * *

GOGO ONEZ

Oraintxe diñotzut: Gogo onegaz ba'zatoz, onartua izango zara; baiña zure gogoak beste batzuk ba'dira, ez zara sekula onartua izango emen bere ez, an bere ez eta iñon bere ez.

Zuri, udalari zintzo orreri, biotz-biotzez eta erritar guztien izenean **ESKERRIK ASKO!**

ENDIKA

Zenbat seme? Iru, asteko ondo

EZKONDU-GUREA

Gaur baserriak mutil zaarrez beterik dagoz: Ez dabe ezkondu nai, edo ez dira ausartzen.

Orain urte batzuk ez zan orrela: gazteen elburua etxagun bategaz ezkontzea zan.

Zelan edo alan ezkondu egin bear zan: zaldizkoagaz ezin ba'zan, koiñezkoagaz, baiña ezkondu.

Gaiñera, ezkontzen ez zana, ez zan begi onez ikusten.

* * *

SEME-ALABAK NOZ?

Baiña gaur ez doguz ezkontza-arloak aitatuko. Seme-arloa bakarrik aitatuko dogu.

Eta semeez, leenengo auxe esan bear: ezkontza ostean, zuzena semeak ekarte zala.

Baiña..., kontuz!

Ezkondu eta laster izan ezker, marmarka ugari izaten zan aurretiz lan egiteagaitik.

Urteagarrenean oraindik ez ba'zan, an zan jende arteko esamesa: «Ez dira gauza».

Beraz, sasoian sasoiko gauzak, eta ezkondu osteko amargarren illabetean sendia ugaritu bear. Ez ariñago, eta ez osterago.

* * *

ERROMES

Leenengo semea edo alaba izan-ostean, marmarka eta esames oneik geinetan urritu egiten ziran.

Aurrerantzean, «Jaungoikoak emoten ebazanek artzen ziran».

Beintzat orrela esaten zan.

Baiña..., eta semerik etortzen ez ba'zan?

Sarritan senar-emazteak erromes biurtzen ziran, eta an joaten ziran Santutegi batera.

Ezagunenak oneik dira: Uxue'ko Amabirjiña, Angosto'ko Amabirjiña eta Aralar'go Mikel Deuna.

Uxue'ra lepoan arri bat ebela joaten ziran; Aralar'era ez eben arririk eroaten, baiña bertako arri baten gaiñean otoitz bat egin ezker, seme bat izaten ei zan.

Onetan ez zan gitxiago Angosto'ko Amabirjiña.

Beintzat orrela uste eban eskean ibiltzen zaan bertako fraile batek.

Jakiña! Amabirjiña au naiko diruzalea zan eta mezedea lortzeko dirua ugari emon bear.

Ostantzean ezin zan ezer lortu.

Onela jazo jakon beintzat Belgika'ko Fabiola Erregiñari: fraile jator au udaro joaten jakon Zarautz'era seme orde z diru eske.

Dirudienez, Erregiñak ez eutson askorik emoten.

* * *

ZERUAN

Baiña kontu au ez da fraile arena bakarrik. Kulturadun jende gazteena be ba-da.

Orain bost urte Bilboko Irakasle-Eskolan ezagutu neban andra gazte bat Angosto'ko Amabirjiña'gaz asarratuta egoan bigarren seme bat emoten ez eutsolako.

Ona emen semeak izateko jokabide berezi bat.

Bestalde, semeak zerurako meritu bat ziran: zenbat eta seme geiago eta Jaungoikoangandik urrago.


Dirudienez, zeruan be ez egoan bardintasunik.

Oraindik gaur be 25 mailla ezbardin ei dagoz.

Seme bakoitzeko, mailla bat gorago: Ogetabost ebazana, betiko zoriontsu Jaungoikoaren ondoan.

Ez da makala egia au: Ainbeste semeren neke eta buruko miin ostean, betiko zoriona: munduan gerra, zeruan bakea.

* * *



Baiña ez ziran senar-emazte danak ain Jaungoiko zaleak.

Batzuk ez eben nai seme geiagorik, eta, aurduntzean, galtzeko aalegiñak egiten ebezan.

Aintziña be ba-egozan abortoaren aldeko batzuk

Ez egoan gaurko beste, ez gaurko beste teknika.

Orretarako jokabide berezi batzuk oneik ziran: perejil edo asun ura barauten artu, maaitik beera saltoka ibilli edo lan geiegi egin.

Gizona beti gizon, naiz eta arazozen itxurak aldatu.

JOSU LEGARRETA

ELORRIO

*Joan naz Elorrio'ra neure erri ikusten
Berrio tontortxoan jarri naz bakean
bertatik ikusten da inguru guztia
ikusmira zoria begien aurrean.*

* * *

*Uri baserri, solo, baso ta mendiak
zein baño zein obeak, ederrez beteak
eurok ikusiagaz diñosta biotzak,
erbestera zertan ioan billa gauz obeak?*

* * *

*Bedar, lore-usaiñak aixe gozoagaz
igoten dau goruntza beko landetatik
garbi gozo susmoak bete nau batean
zorion bake pozak alde guztitatik.*

* * *

*Poztasun onen barrun utsune bat nigan,
gaztearoko, oroipen kezka biotzean,
gaurko edertasuna ez da guztiz bardin
lengo gauz polit batzuk ez dira agirian.*


* * *

*Nun dira antxiñako arizti ederrak?
tantai luza luzeak, zerura begira?
birigarroz beteak, kantari zoliak.
ez dira orain agiri. Nundik ete dira?*

* * *


*Pagadi zuri zabal orlegi argiaz
eskillaso zurizka edertuak beti?
Odolki bigun eben euren azpitan,
gaurko egun oneitan ez dira agiri.*

* * *



*Lengo gaztandi eder ugari zabalak
zozo abiz beteak, ugari igaliz?
Nora alde ein dabe, ziran ba gureak?
Gaiso zital dongeak galdu zitun guztiz.*

* * *



*Zugatz bitarteetan ardi zuri leunak
bildotz gazte trizkarik mendik alaituaz,
eurak emoten eben bizitasun argi
ez dira oin agiri, ioan ziran galduaz.*

* * *

*Orreik galduak dira, nire biotzean
utsune aundi gogor gaurkoz itxi ditu
baiña olan ta guzti eder da benetan
nire inguru dana, poz aundiz, begitu.*

* * *

*Solo zelai baserri, aitz tontor guztiak
lengo bardin ta eder, atsegingarriak,
Piñudi ugariak lengo zugaztiak
ordez bete ditue illun, aberatsak.*

* * *

*Ortze urdin urdiñan odoi batzuk dira
koroe antza dabe gaurkoz beintzat eurak,
Berriotxo aundiak bere aldaratik
botaten dauan lurrun-intsentsu, odeiak.*

* * *

*Murgil nintzan dan dana zorabi pozgarrin
bizitza neke orok aldenuz batean.
Olako ames gozo baiezkor goi goiak
ondo dira bizitzan noizean beñean.*

EUSKERAZALEAK

ONATIBIA JON (G. B.)

Oñatibia, jatorretan jatorra! Euskel zale gartsua! Euzkadi'rentzat jaio ta azia! Beraren Erriaren arri-giltz menperatu-eziña!

* * *

Il zan eguneko izparringiak, euskera batuaren alde ez zala ,agertu eben berarekiko azken itzetan, nor eta nolakoa zan, askorik jakin gabe.

Ni ez naz iñor iñoren barru-barrenak aieratuteko, baiña batuak ez dauka areriorik, danok gura genduke ba, bat eta batua, euskalkiak ondo zaindurik.

Gaurkoak bai, gaurko onek, etsairik ugari euskeraren zori txarrerako.

* * *

Ori izan da ba, izparringietako barria, barri zarra eta, begietarako kipula baiño negartsuagoa.

* * *

Egiñak egin zituan Euzkadi onen onerako.

Agurrik esan bage, joan jaku Jaun Altsuaren altzo zabalera, goi artatik bere babesa izango dogulakotz.

* * *

Nork beteko dauskuz berak emen itzi dauskuzan utsa ta naigabea, bizi-naia ta eziña?

* * *

Zenbat garan Jaunak daki, oraingo batua PITXIAZ bat ez gatozanok, izen egokidun barik, lerro bakar bat iñon ez dogu ikusten eta.

Alak egiten diardue batua txotxolo ori egiten, bizkaiera baztertu ta Bidasoz goiti ezer egiten ez dabelarik, prantzes kutsuzko itzak eta españerazkoak bizi-bizirik esanazoten dauskuez eta.

* * *

Bizkaitar giza-gaisoak: Dozuezan txakur eta zotzak emon egiozuez eskea egitera datorkizuenari, gero batzokietarako bizkaierazko euskel irakasleak dagizkizuezan.

LANDAJUELA'tar A'k.

Izki-nastearen erantzuna

T	X	I	N	D	U	N	L	U	G	O	P	O	Z	A
A	T	R	Ø	G	Ø	K	E	N	A	G	N	O	D	A
T	Z	R	I	E	D	K	R	E	G	I	R	J	R	I
B	E	A	Z	T	I	G	X	X	J	R	R	E	N	S
R	S	D	T	S	D	E	D	I	Z	A	M	D	O	R
R	A	I	S	E	B	M	U	S	I	T	X	U	X	U
A	K	I	O	R	A	J	O	L	L	E	I	R	L	L
B	U	D	Ø	P	A	T	T	S	O	B	I	L	L	A
E	N	Ø	U	T	Ñ	I	D	O	J	O	D	Ñ	Ø	Z
I	R	R	A	S	Ø	L	L	U	B	E	G	E	D	K
T	S	U	B	O	M	U	R	R	O	X	U	N	L	I

***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.

